

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

EXPONE:

Que el nombre de la Junta Administrativa del municipio de Barrundia, que hasta hoy en día ha sido oficialmente *Mendíjur*, en euskera es **Mendixur**.

Que dicha localidad se documenta por primera vez como *Mendissur* en 1025 en la lista de pueblos alaveses conocida como *Reja de Álava*, documento que forma parte del *Cartulario de San Millán*. Posteriormente, se documenta como *Mentisur* (1060), *Mendisoz* (1076), *Mendisur* (1257) y *Mendixur* (1294) tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Gureñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. Asimismo, se documenta en un texto de 1331 en la *Colección Diplomática Medieval de la Rioja* y en el *Libro de Visita del Licenciado Martín Gil* del año 1551, donde también aparece *Mendixur*.

Que *Mendixur* era la forma que se utilizaba en lengua vasca, pero el nombre se oficializó como *Mendíjur*, siguiendo la norma gráfica castellana de 1815 que escribe con <j> los topónimos vascos con el sonido que hoy se representa con x, *Muxika*, *Elexalde*... Posteriormente, con la pérdida del euskera hablado en la citada localidad, predominó la forma oficial, *Mendíjur*, que hasta la actualidad ha venido empleándose como denominación única por la Administración. Prueba del uso es la toponimia menor en la que se recogen testimonios del uso de *Mendixur* desde el siglo XVIII, como es el caso de *Mendixurvidea* «el camino de Mendixur» que aparece en 1753

en Arbulu y en 1766 en Urizar. Una variante es *Mendisurbidea* que aparece en 1841 en Gebara, con explicación pormenorizada: «una heredad en el termino y sitio llamado *Mendisurbide* [...] lindante por el norte con el camino carril de Guebara para Mendijur».

Que testimonio del mantenimiento de la forma *Mendixur* entre los vasco-hablantes de la zona es el topónimo *Mendisurbide*, todavía vivo en el vecino pueblo de Etxabarri-Urtupiña. En dicho nombre, compuesto de *Mendixur* y *bide* «camino» (*Camino de Mendixur*) podemos ver que la forma *Mendixur* se siguió usando en euskera hasta la desaparición de dicha lengua en el lugar y finalmente se convirtió en *Mendisur* como es habitual en época moderna, en la que la *x* vasca se tiende a pronunciar como *s*, tal como ocurre en los nombres propios *Xabier* o *Uxue*.

Por lo que se refiere al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia documental. Sin embargo, la Comisión considera que probablemente sería *mendixurtar*.

En consecuencia y por todo lo expuesto,

CERTIFICA:

Que, de acuerdo con el dictamen correspondiente de la Comisión de Onomástica, la denominación eusquérica de la mencionada localidad es *Mendixur*.

Que, por lo tanto, la denominación completa de dicha Junta Administrativa, en los dos idiomas oficiales, sería la siguiente: *Mendixur kontzejuko Administrazio Batzordea* / *Junta Administrativa del Concejo de Mendijur* o *Mendixurko Administrazio Batzordea* / *Junta Administrativa de Mendijur*.

En Bilbao a treinta de noviembre de dos mil once

* * *

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

ADIERAZTEN DU:

Orain arte izen ofiziala *Mendijur* duen Barrundiako Administrazio Bartzordearen euskal izena **Mendixur** dela.

Aipatutako herria *Mendissur* moduan ageri dela lehenengo aldiz 1025ean, Donemiliagako Kartularioko zatia den *Arabako Goldea* izeneko Arabako herrien zerrendan. Geroago, *Mentisur* (1060), *Mendisoz* (1076), *Mendisur* (1257) eta *Mendixur* (1294) moduan ageri da, Akademia honek argitara emandako G. Lopez de Gereñuren *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* lanean biltzen den bezala. Era berean, *Colección Diplomática Medieval de la Rioja* izeneko Errioxako Erdi Aroko bilduman 1331ean eta 1551ean Martin Gil lizentziatuaren bisita liburuan ere *Mendixur* ageri da.

Mendixur zela euskaraz erabiltzen zen izena, baina, 1815eko gaztelaniaren arau ortografikoaren arabera, *Mendijur* moduan egin zen ofizial, arau horren ondorioz gaur egun *x* moduan idazten den soinua *j-z* idazten baita *Muxika*, *Elexalde*... Geroago, aipatutako herrian euskara galtzean, orain arte esparru ofizialean administrazioak erabili duen *Mendijur* aldaera bakarrik nagusitu zen. *Mendixur*-en erabileraren lekukoa da toponimia txikia, non XVIII. mendetik aurrera biltzen den. Esaterako, Arbulun 1741ean eta 1766an Urizarren *Mendixurvidea* ageri da. Horren aldaera da 1841ean azalpen eta guztiarekin ageri den *Mendisurbide*: «una heredad en el termino y sitio llamado *Mendisurbide* [...] lindante por el norte con el camino carril de Guebara para Mendijur».

Etxabarri-Urtupiña herrian bizirik dagoen *Mendisurbide* toponimoa da inguruko euskaldunen artean bildu zen testigantza. *Mendixur* herri izenaz eta *bide* hitzaz osatutako izenean egiaztatzen ahal dugu *Mendixur* aldaera erabili izan zela euskara bertan desagertu arte eta azkenean *Mendisur* bihurtu zela, garai berrietan ohikoa baita euskarazko *x*, *Xabier* edo *Uxue* izenetan bezala, *s* moduan ahoskatzea.

Herritar izenaren lekukotzarik ez dagoen arren, antzeko izenak ikusita *mendixurtar* izan daitekeela uste du Batzordeak.

Azaldutakoaren ondorioz,

EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak emandako irizpenari jarraiki aipatutako herriaren euskal izena **Mendixur** dela.

Ondorioz, Administrazio batzordearen izen osoa hizkuntza ofizial bietan honakoa izango litzatekeela: **Mendixur** kontzejuko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa del Concejo de Mendijur edo **Mendixurko** Administrazio Batzordea / Junta Administrativa de Mendijur.

Bilbon, bi mila eta hamaikako azaroaren hogeita hamarrean.



Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzorde-idazkaria
Secretario de la Comisión de Onomástica

O.I. / V^oB^o



Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua
Presidente de la Comisión de Onomástica